Kaixo Iker:

Zure egoerari buruz hitz egiteko idatzi dizut. Badakit gaizki ari zarela pasatzen, baina zu zara eta horrela maite zaitut. Ez erreprimitu zure sentimenduak, lortzen duzun bakarra zure buruari mina egitea da.

“Jendea normala” izaten saiatzea esaten dizutenean, esan zu zarela zaren bezalakoa. Eta ezetz esaten badute bidali PIKUTARA edo galdetu ea beraiek “normalak” diren.

Inor ez da normala eta hori kontzeptu harroputz eta diskriminatzailea da. Min egiteko sortua

Zu zarena zara eta zu izatea zure askatasuna da, eta hau ez diezazutela kendu zuri.

Gora zure askatasuna eta gora ZU!!

Agur zure lagun mina eta zure aliaturik hoberena,

**Shelldon L Cooper**

Hola Iker:

Está bien ser como seas; los gustos, estilos o modas nunca definen lo que es una persona.
A mí no me importa cómo te vistas o qué te guste; a mí lo que me importa es la persona que eres. Hiciste lo correcto, y no te preocupes, porque la gente que de verdad te quiere no te juzgará y seguirá contigo aunque seas como seas.
Nunca hagas caso a los malos comentarios; tú ignóralos y sé feliz. En este mundo hay gente muy mala, pero no te dejes llevar por sus opiniones o comentarios.
Sé feliz sin importar lo que piensen de ti. Lo hiciste muy bien.

**Chaeyoung**

Kaixo Iker:

Azkenaldian arraro samar zaudela ikusi dut eta laguntzeko idazten dizut. Ulertzen dut nola sentitzen zaren. Ni ere horrela sentitu ohi nintzen. Badirudi gizarte honetan denok gaudela berdin izatera behartuta. Baina egia esanda, mundua askoz interesgarriagoa da zu bezalako pertsonekin. Egia esanda, badago zu bezalakoa izan den jende gehiago orain zu kritikatzen zaituena seguraski. Pertsonalitatea atzean utzi eta gizarteak erantsitako maskara bat jarri duen jendea. Ni neu adibidez. Lehen gustatzen zitzaizkidan gauzak atzean utzi baitnituen lagun gehiago edukitzeko. Lortu egin dut eta orain pixkanaka lehengo gustuak berreskuratzen hasita nago. Hasieran beldurra ematen zidan baina onartu egin naute. “Onartu” hitza ez da aproposena. Azken finean, nortzuk dira haiek ni nolakoa naizen epaitzeko? Gainera, nire ausardiaren esker gauza berriak probatu dituzte.

Animatzen zaitut nik egindakoa egitera. Eta “onartzen” ez bazaituzte, horiek ez dira zure lagunak. Edozein gauza behar baduzu, deitu nazazu eta hitz egingo dugu. Gogoratu zuk nahi duzun bezala izan behar zarela.

Agur.

**Cagarrito.**

Kaixo Iker:

Pasatzen ari zaizuna normala da nerabezaroan, denok kuestionatzen dugu dena, denok dauzkagu kezkak.

Nahi duzuna izan. Beti izango naiz zure laguna eta hemen nago nahi duzunerako, baina ez sentitu gaizki desberdina zarelako denak desberdinak gara eta.

Hemen egongo naiz zurekin Iker; unicornio bat bazara edo ahulki bat bazara, asko maite zaitudalako.

Iker izan ez edo ahulki bat izan, nire laguna zara.

**Mapatxe urdina**

Iker maitea:

Mireia naiz zure lagun mina. Lehenik eta behin, nahi dut zuk jakitea asko maite zaitudala eta edozer egingo dudala zuregatik.

Bigarrenik, oso pozik nago zuregatik ausarta eta zeu izaten jarraitzeagatik. Eta eskertu nahi dizut beste begirada batekin ikusten dudalako orain mundua. Nirekin zu zeu izan zaitezke, (espero dut zuk hori jakitea eta zu zeu izatea) horrela maite zaitudalako.

Gainera, ez zaitut galdu nahi nire bizitzako pertsona garrantzitsuena zarelako eta ez dakit zer egingo nuke zu gabe

Zurekin nagoenean, gauza txar guztiak desagertzen dira bat-batean. Asko maite ditut gure marrazketa saioak, zure musika gustuak (nirearen desberdinak diren arren) eta arratsalde pasak. Lehen esan dizudan bezala ez zait inporta zer egin zurekin banago.

Gelako mutilek ez baldin bazaituzte ikusten nik ikusten zaitudan bezala, tontoak dira, BENETAN. Espero dut egunen batean zeure burua nik ikusten zaitudan bezala ikustea. Eta ez zaitez ezkutatu zu zeu izatea ez delako ezer txarra.

MUXU. ASKO MAITE ZAITUT (zaren bezala)

**Mireia**